

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen 2020ko urriaren 1eko dekretua, alkatearen eskumenak Raimundo Ruíz de Escudero Ezcurra zinegotziari eskuordetzeko

Kontuan izanik Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa, baita Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoa ere.

Udal gobernuaren eta administrazioaren egungo antolakuntzarekin bat etorriz.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan finkatuta daudela alkatearen zereginak, eta horietako zenbait —dekretu bidez— Tokiko Gobernu Batzarreko kideei eskuordetzeko ahalmena aitortzen zaiola.

Ikusirik Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124.4, a, f, g; 124.5 eta 127.1.e, g, h eta l artikulak, baita Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 12., 40. eta 41. artikulak ere.

Xedatu dut

I. Gobernu-eskuordetzeak.

Lehen xedapena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Raimundo Ruíz de Escudero Ezcurra zinegotziari eskuordetzea zeregin hauek:

a) Udalaren ordezkari izatea egungo Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saileko eta Alkatearen eta Erakunde Harremanen Saileko zerbitzuen jardunetan, zerbitzu hauetakotan izan ezik: Udalbatzaren Bulegoaren barne zuzendaritza eta kudeaketa, Gazteria Zerbitzua, Berdintasun Zerbitzua, Euskara Zerbitzua eta Bizikidetzeta eta Aniztasunerako Zerbitzua, hauek eskuordetze berezia dute eta.

b) Dekretu, ebazpen eta jarraibideak ematea Ogasun eta Giza Baliabideen sailtako zerbitzuen esparruan, baita egintza horien kontra bidezko diren errekurtsioak ebaztea ere, salbu eta lizentziei, kontratazioei eta gastuei dagozkienak eta zigortzeko ahalmena; izan ere, Tokiko Gobernu Batzarren eskumenekoak dira horiek, eta, horrenbestez, hark eskuordetu beharko ditu, behar izanez gero.

c) Udal organo betearazleen erabakiak argitaratu, gauzatu nahiz betetzeko agintzea, a) atalean aipatutako sailei dagokienez. Tokiko Gobernu Batzarrak esleitutako kontratuak sinatzea, a) atalean aipatutako sailei dagozkionetan.

d) Ordainketa-aginduak ematea eta ordainketak gauzatzea edozein bide baliatuz, eta kon-taketa-agiri arruntak izenpetzea.

Azken xedapena. Datoren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn eta udalaren web-orrian zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe geratuko dira dekretu honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko nahiz beheragoko dekretu eta ebazpenak oro.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 1ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE